

Generoa, testu-mota eta hizkuntz klasea*

Brian Paltridge

Azken urteotan gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio generoaren ideiari hizkuntz ikasgelan. Hala ere, “testu-motaren” ideiari garrantzi gutxiago eman zaio. Artikulu honek argudiatzen du “generoa” eta “testu-mota” bereiztea garrantzitsua eta onuragarria dela. Bereizketa hau argitu nahian, generoan oinarritutako testuliburu bitatik ateratako testuen azterketa aurkezten du. Erabilitako testuliburuetako batek helduen bigarren hizkuntzako alfabetatzea lantzen du, eta besteak, berriz, testuinguru akademikoko idazketari erreparatzen dio. Artikuluak, bestalde, generoen eta testu-moten arteko erlazioak hizkuntz klasean ustiatzeko moduak ere proposatzen ditu.

Sarrera

Azken urteotan ELTen¹ gero eta arreta handiagoa jartzen ari zaio generoaren kontzeptuari. Hori Xede Bereziatarako Ingelesaren arloan (ESPen) gertatu da batez ere, baina gero eta gehiagotan jazotzen ari da hizkuntz irakaskuntzako beste arlo batzuetan ere. Esate baterako, Australian generoan oinarritutako testuak erabili dira idazketa akademikoan, laneko ingelesean, helduen bigarren hizkuntzako alfabetatzean eta eskoletako hizkuntz klaseetan. Aitzitik, “testu-motaren” kontzeptuari jaramon gutxiago egin zaio. Horren ondorioetako bat zera izan da, zenbait kasutan “genero” eta “testu-mota” hitzek bat-edo egin dutela, eta “genero” berba ideia biok adierazteko erabili izan dela.

Hogeita hiru genero eta ia milioi bat berbako corpusean oinarritutako eskala handiko azterketa batean, Biber-ek (1988) hizkuntz eskolarako ondorio kontuzkoak dituen bereizketa egiten du generoaren eta testu-motaren artean. Biber-entzat, “genero” terminoak kanpoko irizpideen arabera sailkatzen ditu testuak. Ordea, “testu-mota” erabiltzen da elkarren antzeko forma linguistikoa daukaten testuak sailkatzeko, generoari jaramon egiteke. Horrela, “genero” terminoak “gizartean gertatu ohi diren” ekintza-motak deskribatzen ditu, hala nola otoitzak, sermoiak, kantak eta poemak (Dudley-Evans, 1989: 77). Ekintzok “mota berekotzat jotzen ditu hiztunen komunitateak” (Richards et al., 1992: 156). Mota jakin bateko testuetan, bestetik, hizkuntz egitura jakinak gertatzen dira: horretan dira elkarren antzekoak mota bereko testuak. Biber-ek ikusi zuen genero baten barruan hizkuntz ezaugarri oso desberdinak azal daitezkeela. Genero desberdinak linguistikoki aski antzekoak izan

daitezkeela ere antzeman zuen. Horrenbestez, “genero” eta “testu-mota” testuei begiratzeko bi ikuspegi dira, desberdinak baina aldi berean elkarren osagarriak. Artikulu honek argudiatzen du genero eta testu-mota bereiztea garrantzitsu eta probetxuzkoa dela hizkuntzak ikasteko klaseetarako.

Generoaren eta testu-motaren kontzeptuak

Generoaren zenbait definizioak eragina izan dute generoaren analisisan, batez ere Martin (1984) eta Swales-enak (1990). Martin-en definizioak aparteko eragina izan du generoan oinarritutako idazketaren irakaskuntza garatzeko Australian egin den lanean. Martin-ek (ibid.: 25) honetara deskribatzen du generoa: “etapak dituen, helburu batzuei begira dagoen eta asmoz burutzen den ekintza, zeinetan hiztunek parte hartzen duten gure kulturako kide diren aldetik”. Martinek generoen adibideak ematen ditu, hala nola poemak, kontaketak, azalpenak, hitzaldiak, mintegiak, errezetak, eskuliburuak, hitzordu jartzea, zerbitzu baterako elkarteak, albistegiak etab. Haren lanari gertuagotik begirata, eta adibideon argitan, berehala ikusten da haren definizioak, neurri handi batean, Biber-enaren ikuspegi berbera duela. Swales-en (1990: 58) definizioa honetara dator: “gertaera komunikatibo mota bat, non partaideek helburu komunikatibo multzo bat konpartitzen duten, jatorrizko diskurtso-komunitateko kide adituek ezagutzen dituztenak”. Definizio honek erakusten du Swales-ek ere generoaren kontzeptua Biber-ek adierazitakoaren antzeko ikuspegitik ikusten duela.

Testu-mota desberdinen egituratze erretorikoen hainbat adibide eman dira. Kasurako, “azalpenen” antolamendu erretorikoaren analisi batean, Meyer-ek (1975) testu-egituren lau mota nagusi aurkezten ditu: denboraren hurrenkera, deskribapen-bildumak, konparazioak, eta kausa eta ondorioa. Hoey-k ere (1983) testuetako egituratze erretorikoak aztertzen ditu. Autore honek arazo-irtenbide, orokor-zehatz, kontrastezko erkaketa, eta hipotetiko-erreal erako testuak aztertzen ditu. Crombie-k (1985) arazo-irtenbidea eta gaia-murrizketa-adibidea motako testuen adibideak ematen ditu. Hedge-k (1989) testu-moten zenbait kategoria aurkezten ditu, adibidez deskribapen egonkorak, prozesuzko deskribapenak, kontaketak, kausa eta ondorioa, eztabaidak, erkatu eta kontrastatu, sailkapenak, definizioak eta iruzkinak. McCarthy-k (1991) eta McCarthy eta Carter-ek (1994) testuetako bariazio erretorikoa aztertzen dute, eta maiz aurkitu ahal diren testu moten adibideak ematen dituzte. Egitura erretorikoen deskribapen hauetako bakoitza izugarri baliagarria da hizkuntz klaserako.

Azalpen honek aditzera eman dezake genero eta testu-motaren kontzeptuak argi definituta daudela generoaren analisiaren arloan. Hori hala da zenbait kasutan, baina askoz gutxiago gertatzen da beste batzuetan, eta, bereziki, generoaren analisiaren zenbait aplikazio pedagogikotan. Izatez, badirudi generoaren analisiaren aplikazio pedagogiko batzuk “testu-motaren” ideian oinarrituta daudela, “generoan” baino. Eskoletan lantzen den idazketaz ariki, Derewianka-k (1991), adibidez, genero-kategoria gisa aurkezten ditu kontaketa, istorio, txosten informatibo,

azalpen eta argudio izenen pean sailkatzen dituen testuak. Generoaz Martin-ek egindako lan berriagoetan ere halako kategoriak aurki daitezke (ikus, esaterako Martin, 1989). Halaxe gertatzen da Hammond *et al.*-en (1992) lanean ere. Helduek bigarren hizkuntzako alfabetatzea zelan garatzen duten aztertzen duen lanean, autoreok kategoria-genero legez ematen dituzte anekdotak, deskribapenak, azalpenak, albisteak, jarraibideak, kontaketak, txostenak eta iruzkinak. Hala ere, Hammond *et al.*-ek aurkeztutako testu idatziak aztertuz gero, agerian geratzen da testuoi beste ikuspegi batetik ere begira dakiekeela; hots, identifikatuz generoa eta generoek parte hartzen duten testu-moten kategoria, gorago deskribatutakoaren arabera. .1 taulak erakusten du beste ikuspegi hori.

.1 taula: generoen eta testu-moten adibideak (oinarria: Hammond *et al.* 1992)

Generoa	Testu-mota
Errezeta	Jarraibideak
Gutun pertsonala	Anekdotak
Iragarkia	Deskribapena
Polizia txostena	Deskribapena
Ikasleak egindako lana	Azalpena
Gutun formala	Azalpena
Gutun formala	Arazo-irtenbidea
Albisteak	Kontaketa
Botikarekin batera datorren papera	Jarraibideak
Ikaslearen etxeko lana	Kontaketa
Biologiako testuliburua	Txostena
Pelikula baten iruzkina	Iruzkina

Azterketa honek garbi uzten du testu-mota bat genero bat baino gehiago-tan sar daitekeela. Bestela esanda, “deskribapena” testu-mota sar daiteke bai iragarkien generoan eta bai polizia txostenen generoan. Halaber, genero bat, adibidez gutun formalena, testu-mota bat baino gehiagotan gauza daiteke, kasu honetan azalpenean eta arazo-irtenbidean.

Hoey-ren lanean (1983) testu-motak genero batekin baino gehiagorekin erlazionaturik agertzearen adibide gehiago aurkitzen ditugu: arazo-irtenbide erako testuak, esaterako, iragarkien, berbaldi zientifikoaren, ipuin laburren eta nobelen testuinguruan deskribatzen dira; testu orokor-zehatzak poemen, nobelen eta testu zientifikoaren kontestuan deskribatzen dira; kontrastezko erakaketa motako testuak, berriz, poemen eta editorearentzako gutunen testuinguruan deskribatzen dira. Antzera, Crombie-k (1985) berbaldiaren egiturez egindako lanean, arazoa-irtenbidea erako testuen adibideak aurkitzen ditugu txosten zientifikoaren eta iragarkien testuinguruan, eta gaia-adibidea tipoko testuak, berriz, iragarkien eta albiste kontaketa berran idoroten ditugu.

**Generoaren eta
testu-motaren
adibideak**

Testu hauen egiturari ikuspegi bitik begiratu ahal zaio: edo testuaren egitura generikoa identifikatuz testua zein genero-kategoriatakoa den kontuan hartuta (Beber-en (1998) terminoetan), edo, testuaren egitura deskribatuz, haren barruko antolamendu erretorikoak erakusten dizkigun egituren arabera. Bi ikuskera hauek **.1** irudian daude ispatatuta. Hor, Hammond *et al.*-ek (1992) dakarten gutun formaletako baten analisia aurkezten da. Azterketa horrek erakusten ditu testuaren zenbait osagai estruktural, erraz ezkuta daitezkeenak, baldin eta ikasleei eredu estruktural horietako bat bakarrik aurkezten bazaie. Esate baterako, testu konkretu honen egitura generikoaren analisiak kanpoan uzten du “arazo honek presa handia dauka...” balorazio iruzkina. Hori testuaren osagai funtsezko bat da, non idazleak egoeraz daukan ikuspegia adierazten duen. Era berean, testuaren egituraren analisiak ez ditu aintzat hartzen zenbait konbentzio, hala nola igorlearen eta hartzailearen helbideak jarri beharko liratekeen lekua, edo gutunak bukaera formala izan beharko lukeela. Analisi honek, bestalde, erakusten du “ebaluazioa” izeneko testu-egituraren osagaiak ez duela nahitaez amaieran azaldu behar, arazoa-irtenbidea erako beste testu askotan gertatzen den bezala.

.1 irudia: gutun formala: arazoa-irtenbidea (Hammond et al.-en oinarritua, 1992: 57)

Genero-egitura		Testu-egitura
Bidaltzailearen helbidea	Brighton Road 25 Leasington NSW 2066	egoera
	Azaroaren 29 ^a	
Hartzailearen helbidea	Steelwood Homes-eko zuzendaria Scott Street 21 Leasington NSW 2006	
Hasierako agurra	Jaun/andrea	arazoa
Kexaren adierazpena	Nire pisuko sutegiagatik idazten dizut. Gauza bi ez dabilta ondo, eta oso zaila egiten zait sute-gi horretan jatekorik prestatzea.	
Kexaren arrazoa	Bi bider azaldu dizut arazo hau (azaroaren 10ean eta azaroaren 24an) eta ez duzue ezer egin.	
Zerbait egiteko eskaera	Arazoa larria da eta asko estimatuko nuke sutegia berehala konpontzeko bidea bilatuko bazenu.	ebaluazioa
Bukaerako agurra	Adeitasunez,	irtenbidea
Bidaltzailearen izena	Sara Johnston	egoera

.1 irudian azaldutako analisia zenbait aldetatik nahiko begi bistakoa irudituko zaio baten bati. Hala ere, testu hau gutun pertsonal batekin erkatzen badugu, adibidez, –non egitura generikoaren zenbait osagai ez diren agertzen, esate baterako hartzailearen helbidea, eta bidaltzailearen helbidea eta bukaerako agurra ere ken daitezkeen– bat ohartzen da zein balio-tsua den testuaren egitura generikoa aurkezpen honetan sartzea. Kontuan hartzen dugunean gutun hau bera ebaluaziozko komentario barik idatziz gero nola leunduko litzatekeen haren eragina, agerian jartzen zaigu testuaren egitura analisisian sartzeak daukan balioa. Bestalde, analisiak azpimarratzen du testuaren atal desberdinek testu-egituraren osagai berberaren parte izan daitezkeela. Kasu honetan, bukaerako agurra, bidaltzailearen helbidea, hartzailearen helbidea, hasierako agurra eta testu nagusiko lehen esaldia, denak sartzen dira arazo-irtenbide egituraren “egoera” osagai orokorraren barruan.

.1 irudian aurkeztutako analisiak, beraz, genero eta testu-mota konkretu horietan funtsezkoak diren osagai generiko eta testualak jasotzen ditu. Generoaren eta testu-motaren nozioak batzen dituzten genero-analisiak, edota azterketa horietako bat bakarrik aurkezten dutenek erraz ezkuta ditzakete osagai horietako batzuk, eta, ondorioz, batzuetan gerta daiteke testuen osagai diskurtsiboen ikuskera oso-oso ez ematea ikasleei.

.2 irudian ikerketa esperimental baten txostenaren laburpenaren analisia daukagu. Bertan frogatzen da zelan goian azaldutako ikuspegia onura handiz aurkez daitekeen hizkuntz ikasgelan. Azterketa honetan ikusten da, bestalde, ebaluazioaren osagaia amaieran ere azal daitekeela. Ikergai den arazoa testuan non kokatzen den ere nabarmentzen du analisiak. Arazo hori helburu legez aurkezten da egitura generikoan. Era berean, azterketak begi aurrean jartzen du nola “arazo” osagaiaren irtenbidea ageri den bai metodoaren eta bai emaitzen ataletan testuaren barruan, eta ez batean edo bestean bakarrik.

.2 irudia: ikerketa
esperimental baten
laburpena: arazoa-
irtenbidea (Weiss-
berg eta
Buker-enean oinar-
ritua, 1990: 185)

Genero-egitura

Testu-egitura

Abiapuntua

└

└

Helburua

└

Entzuten duen idazmakina simula-
tuaz gutunak eginez

Entzuten duen idazmakinarekin, per-
tsona batek dioena automatikoki
ezagutu eta azalduko litzateke hiztu-
naren aurrean. Hala ere, entzuten
duen idazmakina fidagarri bat jende-
aren esku jartzeko adina ez da aurre-
ratu berbaldiaren ezagutzan.

Gure esperimentuen helburuetako
bat zera zen, ikustea ea entzuten
duen idazmakina inperfektua lagun-
garria izan zitekeen gutunak egiteko.

└


Egoera

└

└

Arazoa

└



Analisi hau .1 irudikoarekin erkatzean berriz ere jartzen da agerian zelan genero diferentek zeharo antzekoak izan daitezkeen testu-motari dagokionez. Ikaslearen ikuspegitik, honelako analisiak informazio testual ikaragarri baliagarria ematen dute, erakusten dutelako zelan testu-mota konkretu bateko egitura erretorikoak onuraz erabil daitezkeen oso genero desberdinak sortzeko.

Generoa, testu-mota eta hizkuntz ikasgela

Generoen eta testu-moten arteko harremanak modu askotara ustiatu ahal dira hizkuntz ikasgelan. Generoaren analisiaren gaineko literaturan testuen egitura generikoa lantzeko proposatzen diren gauza asko egitura testualak irakasteko ere aplika daitezke. Swales (1990), Hammond *et al.* (1992), Flowerdew (1993) eta Bhatia-k (1993), adibidez, halako jardura askoren adibideak eskaintzen dituzte.

Gainera, hizkuntz ikasgelan genero-egiturak eta testu-egiturak alderatu eta kontrasta daitezke. Adibidez, ikasleei generoen eta testu-moten kategoria batzuk aurkeztu ahal zaizkie, eta testu jakin baten kategoria zein den esateko eskatu. Gero genero eta testu-egituren osagai zerrenda bat eman dakieke, eta testuaren barruan horiek bilatzeko esan. Kontrara, ikasleei testuaren osagai generiko eta testualak aurkeztu ahal zaizkie, eta eskatu testua eraikitze osagai horietatik eta edukidun berba eta konzeptu giltzarrizko zenbaitetatik abiatuta. Beste ariketa batzuetan, ikasleei esan ahal zaie testu bateko atalak ordenatzeko, genero eta testu-egituraz ematen zaien informazioa erabiliz.

Hala berean, ikasleei genero jakin baten adibideak eman ahal zaizkie, eta gero, testu horiek aztertuta, egitura generikoa eta horri lotutako testu-mota(k) zeintzuk diren esateko eskatu. Horrela, ikasleek genero konkretuen ezaugarri tipikoak miatu ahal dituzte, bai eta ezaugarriok izan ditzaketan aldakiak ere.

Xede akademikoetarako ingelesean (EAP) ikasleei esan ahal zaie, esaterako, artikulua, hitzaldiak eta eztabaidak aztertzeko, egitura generikotatik eta horiei lotutako testu-motetan azaltzen diren antza eta diferentziak bila ditzaten. Aztertu dituzten testuetan ikusitako hizkuntza eta eredu diskurtsiboez baliatu eta euren testuak ere sortzeko gidatu ahal ditugu.

Ikasleei esan ahal zaie, era berean, etxeko lanetako eta azterketetako galderak aztertzeko, galdera bakoitzari dagokion testu-mota zein den esan dezaten. Orduan etxeko laneko edo azterketako galdera konkretu baterako “testuaren markoa” egin dezakete (McCarthy eta Carter, 1994: 58-62), hau da, euren erantzunaren antolamendu estrukturala irudikatzen duen diagrama osatu. Gero, irudi hori erabil dezakete bakoitzak bere testua idazteko.

Ondorioak

Artikulu honetan generoaren eta testu-motaren nozioak aztertu ditut hizkuntz ikasgelako kontestuan. Nozio horiek ikasgelan ustiatzeko zenbait modu ere deskribatu ditut. Generoaren eta testu-motaren arteko bereizketa hizkuntzak irakatsi eta ikasteko garrantzitsua eta erabilgarria dela ere adierazi dut. Artikuluaren xede zehatza, edozelan ere, beste hau izan da: berbaldiaren egiturari buruzko ikuspegi desberdin baina osagarri hauek generoaren analisisian eta, aplikazioaren bidez, hizkuntzak irakasteko programetan sartzeko moduak proposatzea.

Modu askotan begira dakieke berbaldiaren egiturei, hemen aurkeztutako bideez gainera. Era horietako bakoitzak generoen izaeraren gaineko ikuskera garrantzitsuak eskaintzen dizkigu. Bestalde, dagoeneko badaude adibide asko, batez ere ESPen eta Australiako “genero eskolaren” lanetan (McCarthy eta Carter, 1994: 29), non generoan oinarritutako hizkuntzaren ikuspegiak arrakastaz aplikatu diren hizkuntz ikaskuntzan eta irakaskuntzan. Generoan oinarritutako hizkuntzaren ikuspegia hizkuntz ikasgelan sartzeko beste modu bat proposatu du artikulu honek.

Itzultzailea: Ana Isabel Morales

Egilea

Brian Paltridge hizkuntzalaritza aplikatuko irakasle senior da Melbourneko unibertsitatean. Hizkuntzalaritza aplikatuko masterra dauka Sydneyko unibertsitatetik, eta doktorea da hizkuntzalaritza aplikatuan Waikatoko unibertsitatetik. Honako aldizkarietan argitaratu ditu lanak: *Applied Linguistics*, *The Journal of Pragmatics*, *English for Specific*

Purposes, *System*, *Prospect*, *Cross Currents* eta *The Teacher Trainer*-en. Bere intereseko ikergaietan honakoak aipa ditzakegu: generoaren analisia eta hizkuntz ikaskuntza eta irakaskuntza, ikerketamethodoak hizkuntz irakaskuntzan eta bigarren hizkuntzako alfabetatze-prozesua.

* Ingeleseaz “Genre, Text type and the language learning classroom” *ELT Journal* (50/3: 237-

243. 1996) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

Bibliografia

Biber, D. 1988. *Variation Across Speech and Writing*. Cambridge: Cambridge University Press.

Bhatia, V. K. 1993. *Analysing Genre: Language Use in Professional Settings*. London: Longman.

Crombie, W. 1985. *Discourse and Language Learning: A Relational Approach to Syllabus Design*. Oxford: Oxford University Press.

Derewianka, B. 1991. *Exploring How Texts Work*. (Revised impression). Sydney: Primary English Teaching Association.

Dudley-Evans, T. 1989. “An outline of the value of genre analysis in LSP work” in C. Lauren and M. Nordman (eds.). *Special Language: From Humans Thinking to Thinking Machines*. Cleveland: Multilingual Matters.

Flowerdew, J. 1993. “An educational, or process, approach to the teaching of professional genres”. *ELT Journal* 47/4: 305-16.

Hedge, T. 1988. *Writing*. Oxford: Oxford University Press.

Hammond, J., A. Burns, H. Joyce, D. Brosnan, and L. Gerot. 1992. *English for Social Purposes: A Handbook for Teachers of Adult Literacy*. Sydney. National Centre for English Language Teaching and Research, Macquarie University.

Hoey, M. 1983. *On the Surface of Discourse*. London: George Allen and Unwin.

Martin, J. R. 1984. “Language register and genre” in F. Christie (ed.) *Language Studies: Children’s Writing: Reader*. Geelong: Deakin University Press.

Martin, J. R. 1989. *Factual Writing: Exploring and Challenging Social Reality*. Oxford: Oxford University Press.

McCarthy, M. 1991. *Discourse Analysis for Language Teachers*. Cambridge: Cambridge University Press.

McCarty, M. and R. Carter. 1994. *Language as Discourse: Perspectives for Language Teaching*. London: Longman.

Meyer, B. 1975. *The Organisation of Prose and its Effects on Recall*. New York: North Holland.

Richards, J., J. Platt, and H. Platt. 1992. *Longman Dictionary of Language Teaching and Applied Linguistics*. (New edition). Harlow: Longman.

Swales, J. 1990. *Genre Analysis*. Cambridge: Cambridge University Press.

Weissberg, R. and S. Buker. 1990. *Writing Up Research. Experimental Report Writing for Students of English*. Englewood Cliffs, N.J.: Prentice Hall Regents.

